



Jose Ramon Ahetxe Plaza, 11
48940 LEIOA (Bizkaia)
tel. 94 607 25 70
faxa 94 607 25 71

infokultur@leioa.net
www.kulturleioa.com



KULTUR LEIOAKO ENTSEGU GELAK ERABILTZEKO ARAUDIA

Kultur Leioak bi entsegu areto ditu:

- Entsegu Aretoa 1: garbia
- Entsegu Aretoa 2: hornidura teknikoarekin musika-taldeentzat.

Areto hauek kultura izaerako jarduerak egiteko pentsatu dira (dantza-entseguak, musika, etab.), erakunde publiko zein pribatuek eta pertsona fisikoek antolatutakoak.

Entsegu Aretok erabiltzeagatik ordaindu behar den tarifa lau aldagairen arabera ezartzen da: eskatzailearen auzokidetasuna, erabilera orduan, hileko maiztasuna eta entseaturako jardueraren izaera.

KULTUR LEIOAKO ENTSEGU GELAK erabiltzerakoan, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

- Kultur ekipamendu hau erabiltzeko baimenak baliogabetu ahal izango dira, eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, behar bezala arrazoitutako bat-bateko inguruabarrek edo interes publikoa babesteak hala eskatzen badute. Interesatuak beharrezko dokumentuak bete beharko ditu eta, Udalak onetsitako fidantza edota tarifa ordaindu, hala badagokio.
- Kultur Leioako Entsegu Gelak erabiliko dituztenek udal-arduradunek edo bertako arduradunek esandakoa bete beharko dute. Halaber, erabil daitezkeen espazio edo materialez modu egokian eta beharrezko xederako baliatuko dira erabiltzaileak, ondasun eta pertsonen eragin liezazkieketen kalteen erantzuleak izanik.
- Kultur Leioako Entsegu Gelak eta bertako materialak txarto edo modu okerrean erabiltzearen ondorioz gerta litezkeen kalteak, ezin izango zaizkio Leioako Udalari egotzi eta ezin izango zaio berari ordaintzeko eskatu, ez bada jarduerak zuzentzeko ardura duten langileen errua edo arduragabekeria izan behintzat (halako langilerik izanez gero), edo ez badago kausazko erlaziorik kalteen eta materialaren zein instalazioen egoera txarraren artean.
- Entsegu Gelen arduradunen aginduak hautsiko edo beteko ez lituzketen lagunei, edo zerbitzua, lokala eta bertako materiala antolatutako jardueren xederako erabiliko ez luketenei, edo lokalean, instalazioetan edo bertako osagaien batean kalteak eragingo lituzketenei, oro har, zigorra ezarriko zaie aplikatu beharreko araudia aintzat hartuta. Zigorra ezartzerakoan kalteak nahitakoak izan diren kontuan hartuko da baita hutsegitea larria edo arina izan den eta kaltearen zenbatekoa ere. Nolanahi ere, zigorrak ezarri aurretik interesatuari/interesatuei esan beharrekoa entzuteko aukera emango zaio/zaie, eta hala badagokio, ez du eragindako kalteak ordaindu beharretik salbu utziko.
- Debekatuta dago Entsegu Gelek dituzten instalazioetatik aparteko beste elementurik jartzea Kultur Zuzendaritzari alde aurretik horren berri eman barik eta hark elementua jartzea baimendu barik. Halaber, elementu horiek jartzeak ez du inoiz eraginik izango areto horretan normalean edo noizean behin egiten diren jardueretan; jarduerak ohiko moduan gauzatzen jarraitu beharko dira.

- Entsegu Geletan ezin izango da txakurrik edo bestelako animaliarik sartu. Era berean, debekatuta egongo da bertan erretzea, eta edariak edo janaria sartzea.

- Leioako Udala izango da Kultur Leioako Entsegu Gelen arduraduna, eta Udalak, beharrezkotzat jotzen duenean, erantzukizun hori Kultur Sailaren esku utziko du. Baina, eta unean uneko jardueraren arabera, antolatzailea izango den/diren lagun/lagunei, taldeari, elkarteari edo erakundeari dagokio jarduera horren eta Entsegu Gelen erantzukizuna.

- Eskaera orria sinatu duen pertsona, edo bere kasuan, pertsona horrek ordezkatzeko duen Erakundea eta unean-unean Entsegu Gela erabiltzen egongo dena, bertan burutuko den jardueraren erantzule egiten da. Hark, halaber, instalazioak garbi eta egoera onean mantentzeko konpromisoa hartzen du, baita higiezinari kalte egin diezaiokkeen istilurik edo ekintzarik, oro har, gertatuko ez dela hitzematzen ere.

Zentzu honetan, baimenaren eskatzailea honetara behartuta egongo da:

a.- Taldearen etorrera Kultur Leioako informazio gunean jakinarazi, era honetan baimendutako pertsonak gelak irekiko ditu. Geletara taldeak betetako izen-emate orrian agertzen diren taldekideak baino ez dira sartuko. Kanpoko beste pertsona baten sarrerak baimen berezia beharko du eta alde zuzenetik jakinarazi beharko da betetzen den eskaera orrian.

b.- Erabilitako materiala batu, hurrengo ekintzarako gela ondo atonduta utzita.

d.- Baimendutako ekintza bukatutakoan, Kultur Leioako informazio gunean jakinarazi, gelak itxi ahal izateko.

KULTUR LEIOAKO ENTSEGU GELAK ERABILTZEKO TARIFAK

Aplikatu beharreko tarifak honakoak izango dira:

Entsegu Aretoa 1

Alokairuaren gutxieneko denbora 2 ordukoa izango da.

- Egun erdirako alokatzea goizez (8.00-14.00h):
 - Astelehenetik ostirala arte: **132,60€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **153€**
- Egun erdirako alokatzea arratsaldean (16.00-21.00h):
 - Astelehenetik ostirala arte: **183,60€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **204€**
- Bi orduko tarte goizez:
 - Astelehenetik ostirala arte: **61,20€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **81,60€**

- Bi orduko tartea arratsalde:
 - Astelehenetik ostirala arte: **81,60€**
 - Larunbat, igande eta jai egunetan: **102€**

Onuradunak:

- Leioako elkarteak (1). Urtean doako erabilera bat. Bigarren erabileratik aurrera, %50eko deskontua.
- Leioako enpresak: %25eko deskontua. Bigarren erabileratik aurrera %50eko deskontua.
- Beste udalerrri batzuetako elkarte eta enpresak: oinarrizko prezioa.

Alokairu tasek salbuespena izan ahal izango dute Leioako kultura elkarte batek bere erabilera modu esanguratsuan eta jarraian urte osoan zehar eskatzen badu. Lagapen hau dagokion hitzarmenean jasoko da.

Entsegu Aretoa 2

Alokairuaren gutxieneko denbora 2 ordukoa izango da.

Musika entseguetan, gelaren erabilpena irauten duen bitartean, erraztuko den materiala honako hau da:

- Bateria osoa, (baketarik gabe) 5 piezatakkoa (kutxa, 3 tom, bombo), bombo oinpekkoa, charston oina eta platera), 2 plater oin platerrekin eta aulkiekin.
- Baxu anplifikadorea
- 2 kitar anplifikadore
- Nahasketa mahaia (8 kanal eta 2 linea)
- 3 mikrofono oin ta 3 mikrofono

Nohizbehinkako tarifak hurrengoak irzango dira:

- 60€, musika taldeentzat, euren kideen artean gutxienez %50 baino gutxiago Leioako biztanleak badira.
- 120€ Leioako kideak %50 baino gutxiago badira.

Entitate edo talde berberak egiten duen local haien erabileraren maiztasunaren arabera edo betiere helburua musika-entsegua baldin bada, honako tarifa hauek aplikatuko dira:

a) Hilabete natural batean lau edo erreserba gehiago egiten badira, gutxieneko 2 orduko denbora tarteagatik ordaindu beharreko kopurua 14-20€ artekoa izango da, ondorengo ordutegiaren arabera:

	10/12h	12/14h	14/16h	16/18h	18/20h	20/22h
AL	14.00 €	14.00 €	14.00 €	14.00 €	17.00 €	20.00 €
AR	14.00 €	14.00 €	14.00 €	14.00 €	17.00 €	20.00 €
AZ	14.00 €	14.00 €	14.00 €	14.00 €	17.00 €	20.00 €
OG	14.00 €	14.00 €	14.00 €	14.00 €	17.00 €	20.00 €
OR	14.00 €	14.00 €	14.00 €	20.00 €	20.00 €	20.00 €
LR	20.00 €	20.00 €	20.00 €	20.00 €	20.00 €	20.00 €
I	20.00 €	20.00 €	20.00 €	20.00 €	20.00 €	20.00 €

b) Hilabete natural batean bi edo hiru erreserba egiten badira, gutxienezko 2 orduko denbora tartearatik ordaindu beharreko kopurua 28-40€-koa izango da, ondorengo ordutegiaren arabera:

	10/12h	12/14h	14/16h	16/18h	18/20h	20/22h
AL	28.00 €	28.00 €	28.00 €	28.00 €	34.00 €	40.00 €
AR	28.00 €	28.00 €	28.00 €	28.00 €	34.00 €	40.00 €
AZ	28.00 €	28.00 €	28.00 €	28.00 €	34.00 €	40.00 €
OG	28.00 €	28.00 €	28.00 €	28.00 €	34.00 €	40.00 €
OR	28.00 €	28.00 €	28.00 €	40.00 €	40.00 €	40.00 €
LR	40.00 €	40.00 €	40.00 €	40.00 €	40.00 €	40.00 €
I	40.00 €	40.00 €	40.00 €	40.00 €	40.00 €	40.00 €

Erreserbak: kasu guztietan gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin egingo dira.

Fiantza:

- *Noizbehinkako alokairua:* erreserba egiteko momentuan fidantza moduan gelaren alokairurako besteko kantitatea diru gordailu bezala utziko da.
- *Aldizkako alokairua:* erreserba egiteko momentuan fidantza moduan hilabetearen alokairurako besteko kantitatea diru gordailu bezala utziko da. Urte naturala edo taldearen aldizkako erabilera bukatutakoan fidantza bueltatuko da, beti ere egunean dagoen araudia hautsi ez bada.

Alokairuaren ordainketa.

Alokairua ordaintzeari dagokionez, honako arau hauek aintzat hartuko dira:

1. Benetan instalazioak erabiliko dituzten eskaera-egileei dagokie Leioako Udaleko Kultur Saileko lokalen alokairua ordaintzea.
2. Dagokion diru-kopurua ekitaldia hasi baino 48 ordu lehenago, gutxienez, ordaindu beharko da, noizean behin nahiz aldizkako erabilpenetan.
3. Derrigorrezkoa izango da Kultur Leioako instalazioak erabiltzeko baldintza orokorrak eta ordaindu beharreko kopuruaren ordainketa onartzeko agiria sinatzea.
4. Erreserbak bertan behera utzi nahi izanez gero, behar bezala justifikatutako eta Kultura Zuzendaritzak libreki baloratutako arrazoiak baino ez dira onartuko. Horretarako arrazoiak idatziz eman beharko dira, onarpena lortze aldera, eta betiere, jarduera egingo litzatekeen eguna baino 8 egun lehenago gutxienez.